



Lorzaintza berde-berdea

Ana Galarraga Aiestaran

Elhuyar

Lorzaintzaren lehenengo arrastoak Mesopotamiako eta Egiptoko lorategienak dira. Garai haietatik, etengabeko bilakaera izan du. Kultura bakoitzak bere erara ulertu du arte hori: musulmanak Koranean agertzen den paradisia islatzen saiatzen ziren, txinatarrek natura imitatu nahi izaten zuten lorategietan... Euskal Herriko gaur egungo lorategietan, berriz, Europako tradizioa nabarmentzen da. Baina badira joera berriak; horien artean interesgarrienetakoa ingurumen-lorenzaintza da.

INGURUMEN-LOREZAINZA INGURUMENARI EMATEN DION GARRANTZIAGATIK desberdintzen da lorzaintza tradizionaletik. Lorezaintza tradizionalak ingurumenean duen eragin kaltegarria gutxitzen saiatzen da, eta hark kontuan hartzen ez dituen funtzioak hartzen ditu bere gain ingurumen-lorenzaintzak.



ARTXIBOKOA

Hain zuzen ere, lorzaintza tradizionalan, estetikari eta aisiari begira diseinatu dira lorategiak. Baina ez da ingurumenerako mesedegarria izatea bilatzen; askotan alderdi hori erabat baztertzen da. Hori dela eta, ongarri mineral eta pestizida gehiegi erabiltzen dira batzuetan, eta sarri-sarri ureztatu

beharreko landareak landatzen dira, ingurura ondoen egokituta daudenak aukeratu beharrean. Kanpoko espezieak sartzeak, gainera, badu beste arrisku bat: horietako espezie batzuk inbaditzaileak dira. ➔

1962an Hyde Park-en egindako ikerketan garbi gelditu zen berdeguneek airearen poluzioa gutxitzen dutela.



ARTXIBOKOA

Berdeguneen onurak hirietan

Ohiko lorezaintzak dituen eragin kaltegarriak gutxitzen eta berdeguneen eragin mesedegarria indartzen saiatzen da ingurumen-lorezaintza. Izan ere, bistakoa da edozein lorategik eragin onuragarria duela hirian.

1962an ikerketa bat egin zen Londresko Hyde Park-en, eta orduan ikusi zen parkea zeharkatzen zuen aireak % 25 poluitzaile gutxiago zituela; hau da, parkeak poluzio-iragazki moduan jokatzen zuen. Gerora egin diren ikerketetan antzeko emaitzak lortu dira, eta orain frogatuta dago poluitzaileak metatzeko, xurgatzeko eta eraldatzeko gaitasuna dutela berdeguneek.

Zuhaitz handiak dituzten berdeguneak eraginkorrak dira airea garbitzen. Zuhaitzen hostoen azalera adaburuarena baino ehun aldiz handiagoa da. Horri esker, airean dauden poluitzaile asko atzematen dituzte. Poluitzaile horietako batzuk, batik bat hautsa eta partikula solidoak, hostoetan gelditzen dira. Euria egiten duenean, lurzorura pasatzen dira eta honek xurgatu egiten ditu.

Gainera, lurzoruan karbono monoxidoa karbono dioxido bihurtzen duten mikroorganismoak daude.

Bestalde, hirietan ugariak diren ozonoa eta sufre dioxidoa bezalako poluitzaileak xurgatzen dituzte zuhaitzek, baita metal astunak ere, hala nola, kadmioa eta beruna.

*“lorezaintza
tradizionalean
estetikari eta aisiari
begira diseinatzen
dira lorategiak,
baina ez da
ingurumenerako
mesedegarriak
izatea bilatzen”*



Parkeetako zuhaitzek, airea garbitzeaz gain, giroa freskatzeko dute.

IDAN BEN SHOSHAN

Aireko poluzioaz gain, poluzio akustikoa ere gutxitzen dute lorategiek. Zuhaitzen eta zuhaixken hostoek zartata apaltzen dute, batez ere maiztasun txikiko soinuak. Horregatik erabiltzen dira pantaila akustiko moduan errepide-bazterretan.

Tokiko kliman ere eragiten dute berdeguneek. Esate baterako, zuhaitzek beroa eta eguzki-erradiazioa xurgatzen dute; hortaz, udan, hiriko kaleetan baino 6 °C gutxiago egon daitezke zuhaitzen azpian. Horretaz gain, zuhaitzek transpiratzen duten urari esker, hezetasun erlatiboa igo egiten da; ondorioz, areagotu egiten da freskura-sentsazioa. Euria egiten duenean, berriz, jasanen indarra motelduta gelditzen da hostoengatik, eta antzekoa gertatzen da haizearekin: landarearen altueraren 10-15 handiagoko azalera batean, haizearen abiadura erdira gutxitzen da.

Ingurumena zaintzen

Ingurumena zaintzeko, nekazaritza ekologikoan ohikoak diren pestizidak erabiltzen dira ingurumen-lorezaintzan. Produktu horiek erabili baino lehen, ordea, gaitzei eta izurriei aurre hartzeko hainbat teknika erabiltzen ditu lorezainak.

Batetik, lurzoruak egoera onean eta landare-espezieei egokituta egotea komeni da; hartara, gaitzak ez dira hain erraz azaltzen. Noski, landareek ere egokiak izan behar dute klima eta inguru horretarako.



A. GALARRAGA

Berdegunek zaratatik babesteko ere balio dute.

Gainera, zenbat eta espezie desberdin gehiago eduki, orduan eta zailagoa da gaitzak eta izurriak hedatzea. Hala ere, landareren bat gaixotzen bada, kalte-tutako zatia edo landare osoa kendu eta erre egin behar da, gainerakoak kutsatzea galarazteko. Eta landare bat inautesteko erabilitako tresnak beste landare batekin erabili baino lehen desinfektatzea komeni da. Honi guztiari borroka kulturala deitzen zaio.

Bestetik, borroka biologikoa ere erabiltzen da. Izurriak eragiten dituzten organismoak kontrolatzeko, haien bizkarroi edo harrapari diren espezieak erabiltzean datza. Adibidez, marigorriak landare-zorri helduak eta larbak jaten ditu, eta armiarmak intsektu asko harra-patzen ditu, tartean baita landare-zorriak ere.

Landareek ere egiten dute izurrien aurkako lana: zitrikoek, izpilikuak, erro-meroak eta beste landare aromatiko batzuek intsektuak uxatzen dituzte, eta intsusak satorrak aldentzen ditu. Nektarra erraz hartzeko moduan duten landareek eta huntzak, berriz, organismo kaltegarriak kontrolatzen dituzten intsektuak erakartzen dituzte.

Neurri horiek kontuan hartuta, ez dago hainbeste pestizida erabili beharrik. Halaber, garrantzitsua da ura ondo kudeatzeko sistemak ezartzea, baita etengabe ureztatzea eskatzen ez duten

*“ingurumen-
lorenzaintzan,
besteak beste,
borroka biologikoa
eta kulturala
erabiltzen dira
izurriak
kontrolatzeko”*

landareak aukeratzea ere. Hartara, ez da lorategi tradizionaletan adina ur xahutzen.



ARTXIBOKOA

Armiarmak oso baliagarriak dira izurriak eragiten dituzten organismoak kontrolatzeko.

Natura eredu

Lorategi tradizional askoren diseinuetan lerro zuzenak eta irudi geometrikoak nagusitzen dira. Hiriak ere hala-koxeak dira: kale zuzenak, etxe karra-tuak... Naturan, berriz, forma desberdin ugari daude eta ezer ez da hain erregularra; aldi berean, harmonia eta oreka gordetzen dute naturaren formek.

Ingurumen-lorenzaintzan natura eredu gisa hartzen da, eta lorategi tradizionalen zurruntasun geometrikoa hausten da, efektu naturala lortzeko. Hala, lurrazala ez da laua izaten, baizik eta aldapekin eta bihurtuarekin. Bideak okerrak dira, eta neurri eta altura desberdineko landareekin jokutzen da. Landareak harri-tartean sortzen dira, eta harriak berak lurzorutik ateratzen dira, ez daude lurzoruaren gainean jarrita. Urmaelak, hormigoizkoak izan beharrean, itxura naturala izateko diseinatzen dira, materialak, hondoa, ertzak eta uretako landareak kontuan hartuta. Ur-zorrotaden ordean, ur-jauziak jartzen dira... Helburua elementu ez-naturalak saihestea da, eta itxura harmoniatsua eta naturala lortzea.

Berdegunea inguruan txertatuta egoteko, bertako espezieak erabiltzen eta inguruan dagoen landare-komunitatea imitatzen saiatzen dira. Garai batean,



ARTXIBOKOA

Berdeguna inguruan txertatuta egoteko, bertako landare-komunitatea imitatzen saiatzen da lorezaintza-mota hau.

baina, kanpoko espezie ugari ekarri ziren lorategi britainiarren ereduari jarraituta; espezie horiek ondo baino hobeto egokituta daude orain hemengo klimara eta ingurura, bertakoak baino azkarrago hazten dira eta merkeagoak dira gainera.

“ingurumen-lorezaintzak lorategi tradizionalen zurruntasuna hausten du, efektu naturala lortzeko”

Euskal Herriko landare-komunitate esanguratsuenak artadiak, hariztiak, pagadiak eta pinudiak dira. Horiek lorategietan ezartzea ez da erraza, baina hiritar batzuentzat bertako inguru naturalaren errepresentazio hurbilena dira. Hortaz, ingurumen-lorezaintzak beste funtzio bat ere betetzen du, funtzio pedagogikoa, alegia.

Zatoz lorategiaren babesera!

Faunari begira ere, onuragarria da bertako landareak erabiltzea lorategietan. Izan ere, ornogabe ugari elikatzen dira bertako landareekin, eta ornogabe horiek beste animaliak erakartzen dituzte. Egoera naturala denez gero, ornogabe horiek ez dira izurri bihurtzen. Aldiz, kanpoko espezieekin izurriak gertatzeko arriskua askoz ere handiagoa da: oso espezie gutxi erasotzen diete kanpoko landareekin etor daitezkeen ornogabeei, eta, azkar ugartzeko aukera dutenez, harrapariak ezin dituzte kontrolatu.

Lau kultura, lau lorategi

Estilo askotako lorategiak egin dira historian zehar, lekuari eta garaiari egokituta. Gaurko lorategietan, baten zein besteren eraginak antzematen dira, neurri batean behintzat.

Agian, arrotzenak ekialdeko estilokoak dira. Japoniako lorategiak dira estilo horren eredu: indarren oreka bilatzen dute, eta tearen zeremoniarekin oso lotuta daude. Errito hori betetzeko leku egokiena lorategia da; beraz, oso leku lasaiak dira, eta harriak dituzte han eta hemen bisitariak gelditzera eta paisaiatzeko gozatzera gonbidatzeko.


Lorategi islamiarretan, berriaz, Koranean aipatzen zen paradisuak irudikatzen saiatzen dira. Basamortuari, beroari eta hondarrari ihes egiteko, hezetasuna eta itzala bilatzen dute. Horretarako, zuhaitzak eta ubideak dituzte.




ARTXIBOKOA



ARTXIBOKOA



D. PIRMANN



ARTXIBOKOA

Estilo frantziarrek lorategietan geometria asko zaintzen da. Zuhaitzak ilaratan eta bideak ondo mugatuta daude, eta garrantzi handia dute bai urarekin sortutako jokoek bai eskulturek.

Hemengo lorezaintzan, ordea, eragin handiena lorategi ingelesek izan dute. Estilo horretan, naturari begiratzen zaio, eta, erromantizismoaren garaiarekin bat, baso txikiak, haitzuloak, muiño artifizialak, lorez betetako txokoak... jartzen dituzte lorategietan. Kanpoko espezieei ere aparteko garrantzia ematen diete, eta espezie exotikoak jartzeko toki egokiak egiten dituzte.



ARTXIBOKOA



ARTXIBOKOA

Berdeguneak animalien babesleku izateko ere diseina daitezke, haientzat leku egokiak jarriz.

Horretaz gain, bertako landareen frutak jangarriak dira gehienetan, eta hegaztiak eta karraskariak jaten dituzte.


Berdegunean animaliak ugaritzeko modu bat beraientzat bizileku bereziak jartzea da. Kaskabeltzak, amilotxak, gerri-txoriak, garrapoak eta beste txori batzuk zuhaitzen zuloetan bizi dira, baina parkeetako eta lorategietako zuhaitzetan ez da zulo asko egoten. Txorientzako toki egokiak sortzeko, txori-kutzak jartzeko aukera dago. Ez da alferrikako mesedea: txori horiek intsektuak jaten dituztenez, izurriak kontrolatzen laguntzen dute.


Zenbat eta handiagoak izan berdeguneak, orduan eta aukera handiagoa

*“lehen baino
ohikoagoa da itxura
naturaleko parkeak
egitea, baita
bertako basoetan
arruntak diren
landare-espezieak
ikustea parkeetan
ere”*

ematen zaie animalia handiagoei bertan hazteko. Sugandilak, satixuak, saguak eta katagorriak gehiago ugaltzen dira nahiko toki badute, baita haien harrapariak ere, berdegunera

sarbidea izanez gero, noski. Horretarako, hiriaren kanpoaldearekin lotzeko pasabideak egin daitezke.

Sarritan, ordea, ezinezkoa da gauza horiek denak egitea. Tokia mugatua izaten da, eta udal gehienetan oraindik gehiago begiratzen zaio kostuari ingurumenari baino. Hala eta guztiz ere, gero eta lorezain gehiagok hartzen ditu kontuan ingurumen-lorezaintzaren oinarriak, eta ahal den neurrian aplikatzen ditu. Ondorioz, lehen baino ohikoagoa da itxura naturaleko parkeak egitea, baita bertako basoetan arruntak diren landare-espezieak ikustea parkeetan ere. Ingurumenaren eta hiritarren mesedetan. 



ITURRARANGO LORATEGI BOTANIKOA



Gipuzkoako Foru Aldundi
Nekazaritza eta Ingurumen Departamentua

Hostoz hosto
mundua zeharkatuz
pausoz pauso
landareak babesten